

KANALAK

Gure bezeroak gurekin harremanetan jartzeko, web orrialde bat sortu dugu (www.Frigo&Tag.com) eta bertan telefono zenbakia eta email helbide bat jarri dugu. (frigotag@kalypso.com) Beraz honen bitartez, gaur egungo teknologia erabilia gurekin komunikatzeko aukera izango dute. Gainera, salduko diren dendetan ere gurekin harremanetan jartzeko aukera izango lukete, arazoren bat egonez gero, bertako langileek fisikoki nahiz interneten bitartez, irtenbide bat aurkituko genuke.

Bestalde, bezeroekin harremanetan jartzeko ere, telebistan albisteak aterako dira eta hainbat teknologia-aldizkarietan ere. Bertan salduko diren dendek izenak eta telefonoa zenbakia ageriz. Komunikabide bide hauek arrakasta izanez gero, mantendu egingo lirateke, bestela modu berriak erabiliko genituzke bezerotaraino iristeko.

Gure Web gunean, bezeroak beraien iritzia jartzeko aukera izango dute, eta modu honen bitartez, haien aholku eta kritikak kontutan izanda, aldaketak emango genituzke beharrezko tokietan edo komunikabide berriak ezarriko genituzke.

Gure produktua talde guztietara bideratuta dago, hau da, helduentzat, gazteentzat nahiz adinentzat. Edozein pertsonatzat baliagarria izan daiteke, denek dugulako elikagaiak garaiz kontsumitzearen premia.